



44. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

2026KO UDAZKENA - AZPEITIA

2026 KARTEL LEHIAKETA - OINARRIAK

- 1. Xedea:** 2026ko Euskal Antzerki Topaketak iragartzeko kartel ofiziala hautatzea.
- 2. Lan kopurua:** Egile bakoitzak gehienez **bi lan aurkeztu ahal izango ditu**, jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta beste inongo lehiaketatan saritu gabeak.
- 3. Kartelaren neurriak: 450mm x 680mm** (zabalera bider altuera).
- 4. Euskarria:** Formatu digitalean (JPG, TIFF edo PDF) aurkeztu behar dira 72 dpi-tan (RGB) eta 300dpi-tan (CMYK), azken hori 5 mm-ko koskarekin. Bidalitako Azpeitiko Udalaren Sede Elektronikoko eskaeran kartelen estekak erantsi behar dira, fitxategien izendatzea formatu honetan egingo da: [KARTELAREN LEMA]_72dpi / [KARTELAREN LEMA]_300dpi
- 5. Teknika:** Kolorea eta teknika, **aukeran**.
- 6. Agertu beharreko testua:**

AZPEITIA
44. Euskal Antzerki Topaketak
2026ko udazkena
- 7. Aurkezteko epea eta tokia: 2026ko maiatzaren 4tik 29ra**, biak barne Azpeitiko Udalaren Sede Elektronikoa, "Herriko Ekimenak" menuan dagoen tramitean.
- 8. Argibideak:** Azpeitiko Udala - Kultura Saila
Plaza Nagusia, 5 – 20730 Azpeitia.
Telefonoa: 943157068
- 9. Eskubideak:** Kartelean agertzen diren irudien eta elementuen eskubideen jabetza kartelaren egilearenak izan behar dute eta bestela erabilera libreko errekurtsuak izan behar dute. Egileak izango dira oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzearen arduradun.
- 10. Baimenak:** Udalak libreki ustiari ahal izango du kartel irabazlea Jabego Intelektualaren Legearen Testu Bateratuko 26. artikuluan adierazitako epearen baitan eta eskubidea izango du obra edozein bitarteko edo euskarri ukigai nahiz ukiezin baliatuz adierazteko. Orobat izango du eskubidea mundu osoan obraren ustiapen komertziala bideratzeko, horretarako edozein modu baliatzen duelarik ere. Berariaz sartzen da horren baitan lana online jarri edo emateko, nahiz sare digital interaktiboen bitartez eskuragarri jartzeko eskubidea. Era berean, Azpeitiko Udalak edozein komertzializazio euskarritan ere erreproduzitu ahal izango du kartel irabazlea, dela zuzenean, dela hirugarren bati ustiapen hori baimenduz. Kartel egileek baimena eman behar dute aurkeztutako lanak Azpeitiko Udalaren web-orrian argitaratzeko, eta kartel finalisten erakusketan aurkezteko. Azpeitiko Udalak irabazlearen kartelean erakunde-marka nahiz beste batzuk sartu ahal izango ditu.
- 11. Identifikazioa: Lanak sinadurarik gabe aurkeztu beharko dira.** Hautagaia nor den erakusten duen sinadura edo marka digitalik badago, hura automatikoki kanporatuko da lehiaketatik. Kartelarekin batera 1. eranskina beteta eta sinatuta bidali beharko da, hau da, hautagaiaren datu



44. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

2026KO UDAZKENA - AZPEITIA

pertsonalak eta zinpeko adierazpena. Epaimahaiak ez du izango hautagaien informazio pertsonalik epaia eman arte.

12. Saria:

12.1. Kartel irabazlea: **900,00 euroko saria** kobratuko du egile irabazleak.

12.2. Azpeitiko Udalak saria ordainduz erosi egiten du kartel irabazlea, eta egileak kartelaren gaineko jabego intelektualari dagokion eskubide ekonomiko oro modu eskusiboan berari emango dio.

12.3. Inprimaketa hobetzeko kartel irabazlean zerbait aldatzeko beharra ikusiz gero, hala egin dadila erabaki ahal izango du Azpeitiko Udalak eta hori proposatu egileari.

12.4. Saria eman gabe utzi ahal izango da, aurkezten diren lanek ez badute behar adineko kalitatea edo baliorik. Hori gertatuz gero, Azpeitiko Udalak artista edo diseinatzaile grafiko bati enkargatu diezaiolke lana.

13. Kartel irabazlea aukeratzea:

13.1. Epaimahaia: Gutxienez hiru adituk osatutako epaimahaia teknikoak hautatuko du aurkezten diren lan guztien artetik kartel finalistak, gehienez 20, eta finalisten artean kartel irabazlea hautatuko da.

13.2. Irizpideak: Sormena, kalitate grafikoa nahiz plastikoa, deigarritasuna eta erreproduzitu nahiz editatzeko erraztasuna izango dira kontuan.

13.3. Irabazlea jakinaraztea: ekainaren bigarren hamabostalditik aurrera jakinaraziko da zein den irabazlea, web orrian eta prentsa ohar baten bidez.

13.4. Epaimahaiaren ahalmena: Oinarri hauetako irizpide teknikoak betetzen ez badira, autoretza zalantzazkoa bada, pertsonen duintasunaren kontrakoa bada, beste lanen baten plagiotzat jotzen badu (baita, halakotzat jotzerik ez badago ere, imitazio hutsa edo beste lanen batek iradokia bada, edo beste lanen batekin bat badator, halako neurrian non, epaimahaiak, zirkunstantzia horren berri izan orduko, erabakitzen duen ez duela nahikoa originaltasun-merezimendurik) edota beste lehiaketaren batean saritutako egile beraren beste lan baten oso antzeko estetika, kontzeptua eta konposizioa dituela uste bada, zirkunstantzia hauetakoren bat egokitzen delarik, dena delako lana hautatze prozesutik kanpo uzteko ahalmena izango du epaimahaiak.

14. Erakusketa: Azpeitiko Udalak **erakusketa egingo du** hautatzen diren, gehienez 20, lehiaketako kartel finalistekin.

15. Oinarriak onartzea: Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar, baita epaimahaiaren erabakia ere, beraz, ezingo da horien kontra jo.